

Emakumea eta 15 urtekoa

Amagoia Mujika
Telleria

Arandinako futbol jokalarien ingurukoa amorruez bizi dut. Ez nengoen han, baina erraz samar irudika dezaket zer gertatu zen, tamalez. Ariketa hori nik nahi baino errazago egin dezaket emakumea naizelako eta nik ere behin 15 urte izan nituelako. Badira emakumea izan eta 15 urte izateko modu desberdinak. Esker-rak. Baina zabalduena, orokortuena, badakigu zein den.

Zure gorputzarekin borrokan ari zara, azkarregi edo mantsoegi doalako. Hel-duagoak direnetan jartzen duzu begira-tua, lelotuta. Ordurako ondo barneratu-ta daukazu benetako maitasuna arnasa mozten dizun hori dela, pentsatzen uz-

ten ez dizuna, barre lehertzeraino eta negar usteltzeraino eginarazten dizuna. Eta helduagoak diren horiek behin eta zeharka begiratzen badizute –nahiz eta zutaz barre egiteko izan– puxika batean sentitzen zara, hegan egiteko gai. Mun-duko pertsonarik interesgarriena, zo-riontsuena, zortedunena sentitzen zara eta zure begietatik ikusteari uzten dio-zu. Dagoeneko ez zara zu, liluratuta zauzkan horrek nahi duzuna zara. Zuk ez dakizu, baina berak badaki. Zure hel-buru bakarra bera kontentatzea da. Eta zuk zer nahi duzun ahaztu egiten duzu. Horrek ez dauka garrantzirik.

Gainera, futbolaria bada, jendarte ho-netako izar distiratsua, tupea lakaz mi-

matzen duen horietakoa, zure poza are puztuagoa da, paparrean kabitzen ez zaizuna.

Arandinako hiru bortxatzaileak ikus-ten ditudan bakoitzean amorruren sua igotzen zait sabeletik gora. Madarika-tuak zuek, hori guztia bazenekitelako. Bazenekiten 15 urte zituela eta bere be-gietara begira ulertu zenuten edozer egiteko moduan zinetela.

Gure 15 urteekin gogoratzen naiz eta gure alaben 15 urteekin eta ostikoka amorratzen naiz, kasketa harrapatzen duenaren frustrazioarekin, gauza ba-tzuk zer gutxi aldatu diren konturatuta. Kasketa baretu eta lanean segitu behar-ko dugu, derrigorrez. •

Txerri-muinak ordainetan

Xabier Mikel
Errekondo

Euskal kulturari balioa emateko aldarriak gero eta ugariagoak di-ren honetan, justua iruditzen zait familia –eta lagunarte– or-duetan zein otorduetan presenteen du-gun animalia alde guztietatik eder ho-rren aldarri ere egitea, gora txerria!

Gaur San Tomas egun handia da, txis-torra gastronomiaren gailurrera igotzen dugunekoa, hozkatxoak emateari utzi gabe sagardoz zein ardoz bustitako ezta-riak etenik gabeko berriketan korapila-tzen ditugunekoa, zerrama erraldoia erregina guztiahaldun bilakatzen dugu-nekoa.

Harago, nago gizarteari egiten dion ekarpenagatik zerria gure kulturaren ikur nagusietakotzat jo beharko genuke-ela. Baina ez soilik duen guztia ema(te)n duelako euskal belaunaldiek biziraun dezaten, baizik eta hortz artean zerrikia nola hitzetik hortzera zerrikeriak eta ze-rria oinarri duten esapideak darabilzki-gulako ere.

Inertzia hutsez etorri zait burura bat: “Txerri-muinak ordainetan”. Esaera eza-guna dugu Usurbilen, egun nekez entzu-ten bada ere. Ahotsak proiektu ederrean topatu dut Joxe Torregarai herriko gizon galantaren ahotik. Honela azaltzen du

berak: «Zuk niri eskatzen badidazu zer-bait, nik eskatutakoa uzten dizut eta esaten dizut ‘txerri muinak ordainetan, e?’, adieraziz itzuli egin behar didazula». Edo Barrikan jasotako beste hau, “etxe-en gehien mima dana txarrie”.... etzen kasualitatea izanen. Eta zenbat halako.

Pentsa, zerririk izan ez balitz, a ze hu-tsunea etxeko mahaian... eta gure hizte-gian. Agian ez ginatekeen garen bezala-koak izanen, agian ez ginateke izanen ere...

Txerriari inoiz itzuli ahalko ote diogu berak emandakoa... Txerri-muinak or-dainetan! •